

## SOINU-ZERBITZUA

Bertso saio bat behar bezala burutzeko ezinbesteko osagarria da soinu-ztapen egokia izatea aretoan, plazan, frontoian, kultur etxean, ostatuan...

Bertsolarien eta gai-jartzailearen kontrataziotik aparte eskaintzen den zerbitzua da. Lekuaren arabera, kostua aldatu egin daiteke. Hemen erreferentzia bat.

- Jaialdia edo libreko saioa.....550€+BEZ (%21)
- Lagunartekoa (bertso bazkari, bertso afari, bertso merienda).....350€+BEZ (%21)

Dena den, **azken aurrekontua lekua edo saio eredia jakin ondoren emango da**

### BERTSO SAIOETARAKO BEHAR TEKNIKOAK

- Aretorako edo eremurako soinu-ekipo egokia.

Publikoaren eremua kalitatez eta ulergarritasunez uniformeki estaltzen duen soinu-ekipoa.

- 3 ahots-mikrofono, gutxienez.

Normalean 3 ahots-mikrofono (Shure SM58 edo antzekoa) erabili ohi dira, bakoitza bere euskarriarekin.

- Monitoreak.

Gutxienez, 2 monitore beharko dira bertsolarientzat.

- Argiztapena.

Aretoa edo eremua iluna bada, oholtzak argiztapena beharko du. Gutxienez, argiztapen frontal bat beharko da. Bertsolarien erosotasunerako publikoak ez du iluntasunean egon behar.

## KARTEL-ZERBITZUA

Bertso saio bat behar bezala iragartzeko osagarri garrantzitsua da kartelaren edo irudiaren euskarri egokia izatea. Horretarako, bertsolarien eta gai-jartzailearen kontrataziotik aparte, kartel-zerbitzua eskaintzen dugu; zerbitzu honen bidez, inprimatzeko egokia den kalitatezko euskarria PDF formatuan, eta sare sozialetan iragartzeko JPG formatua helaraziko zaio antolatzaileari.

Kartel bakoitza, eredu bati jarraiki, pertsonalizatua izango da: bertsolaria, gai-jartzailea eta gainerako partaideak, saio-mota, lekua eta ordua, antolatzaileen logoak... jarrita

Aurrekontua.....80€+  
BEZ (%21)\*

- Aurrekontu honetatik kanpo geratzen dira berariaz sortutako kartel orijinalak eta ez-ohiko aldaketa guztiak
- Kartel fisikoak inprimatu eta helbide jakin batera bidaltzeak ere aparteko aurrekontua izango du